

EUSKAL PALINDROMOAK, EUSKARAREN ABERASTASUN EZKUTUA

edo

Aizu!, Epi, okada ustetsu ustetsua da koipe uzia

Joseba Mikel Agirregabiria

ZER DA?

Palindromoa hitz edo espresio kapikua da. Bai normal bai alderantziz irakurtzen dugunean, gauza bera edo hitz bera da. Euskaraz, adibidez USTETSU edo AISIA, eta gaztelaniaz RECONOCER edo ANILINA. Etimologikoki palindromo hitza *palin* eta *drom* erro grekoetatik dator. Hauek *berriro* eta *korrika egin* esan nahi dute, hurrenez hurren.

Osatzeko, palindromo zehatz hauei lotu ahal dizkiegu *eretrogrado* deritzogunak (etimologikoki, alderantziz dabiltzanak esan nahi du). Hitz hauek, eretrogradoak, alderantziz irakurrita ere espresio zentzudunak dira hizkuntza berean, nahiz eta esanahiak ezberdinak diren. Euskaraz adibidez, ARAZI eta IZARA, edo gaztelaniaz AZAR eta RAZA.

ZERGATIA

Zer diren esan ondoren, argi dago palindromoak hitz-jokoak gustatzen zaizkienentzat direla. Nahiz eta palindromoen bilaketa gidatzen duten arrazoiak sakonak diren, edozein simetriak sortzen duen estetika atseginean oinarrituta daude. Naturak eta bere legeek propietate simetrikoko ugari daukate eta magnitude fisiko asko itzulgarriak dira.

Hitz palindromikoek homologoak dituzte beste arlo batzuetan: atzetik aurrera egin ahal diren melodiak, zenbaki kapikuak, simetria axiala daukaten marrazkiak,...

Psikoanalisi modernoaren barnean, Karl Jung-ek hitzen binomioetan oinarritutako gatazkak aipatzen ditu; *God-Dog* bezala (Jaingo-Txakur).

ADIBIDEAK

Euskal lexikografiak hitz palindromo eta eretrogradoen aberastasun harrigarria dauka; beste hizkuntzek (gaztelaniaz eta ingelesak) dutena baino handiagoa, adibide gisa, ikerketa konparatibo labur honetan erakutsiko dugunez. Azkenean, eranskin gisa, palindromo eta eretrogradoen hiru zerrenda erakusten ditugu. Taula hauek egiteko hiztegi batzuk eta informatika-programa bat erabili dira.

Zerrendetan agertzen diren hitz batzuk hiru hizkuntzetan daude. RADAR adibidez, palindromo bezala apropos egindako anglizismoa da, irrati-uhinen isladapena aditzera emateko.

Borgmann-en literatur lanean hitz palindromiko asko agertzen da zenbait hizkuntzatan (zoritxarrez, ez du euskarazkorik sartu). Hitz palindromorik luzeena *saippuakauppias* da; suomieraz *xaboi-saltzaile* esan nahi duena. Toponimo palindromikoen izenen artean, *Wassamassaw* (Ipar Carolinan dagoen herri bat) daukagu. Indiar hizkuntzan *inoiz ikusitako lekurik txarrena* esan nahi du. Izen berezien artean hauek ditugu: *Lon Nol*, Birmaniako lehen ministrari izandakoarena, eta *Reviso P. Oliver*, Illinoiseko Unibertsitateko irakasle batena.

Palindromoak sortzeko txapelketek oso ondorio onak eman dituzte hizkuntzarik landuenetan. Perpaus palindromikoan batez ere artikulazioa saritu ohi da. Esaldiaren luzerak garrantzi handia dauka, baita ulerterraztasunak eta berezkotasunak ere. Gaztelaniaz, esaldi batzuk ezagunak dira; adibidez *dábale arroz a la zorra el abad*, *Anita lava la tina*, edo *Anás usó tu auto*, *Susana*. Azken hau Julio Kortazar idazle ospetsuari dagokio.

Ingelesezt, lehiaketa batek honakoa eman zuen: *Doc, note, I dissent. A fast never prevents a fatness. I diet on cod* (Begira, agure, ez nago ados. Barauak ez du gizentasunetik gordetzen. Nik bakailao-dieta dut). Palindromozale anglosaxoi ospetsu baten lana da hurrengo esaldia: *A man, a plan, a canal -Panama!* (Gizon bat, plan bat, Panama ubide bat). Beste ingeles batek esaera palindromiko bat osatu zuen Ned pertsonaiaren galderari egoki erantzuteko, hau da: *Named undenominationally rebel, I rile Beryl? La, no! I tan. I'm, O Ned, nude, man!* (Matxinatu lotsagabea ni? Beryl zirikatzea? Ned, mutil, biluzik nago beltzaran egoteko!).

PROPOSAMEN BATZUK

Azken iradokizun gisa, irakurleei beren kabuz espresio edo esaldi palindromiko berriak egitera anima daitezela esan nahi diegu. Horretarako, ondoko taulak erabil daitezke. Hori gusztatuko zaie gurutzegramazaleei. Are

LEHEN TAULA: EUSKAL HITZ PALINDROMIKOAK ETA ERRETROGRADOAK

- 1 Erretrogradoa **-a**: el, la, lo --- **a-**: a-
- 2 Erretrogradoa **-era**: manera --- **are-**: pancreático
- 1 Palindromea **aba**: antepasado, padre
- 3 Erretrogradoa **abal**: aval --- **laba**: lava
- 4 Erretrogradoa **adi**: alerta, atento --- **ida**: hehecho
- 5 Erretrogradoa **adia**: gemido --- **aida**: arre
- 6 Erretrogradoa **ados**: conforme, de acuerdo --- **soda**: soda
- 7 Erretrogradoa **agata**: ágata --- **ataga**: tranca
- 8 Erretrogradoa **agot**: agote --- **toga**: toga
- 2 Palindromea **aisia**: asueto, ocio
- 9 Erretrogradoa **aizu**: escucha, oiga usted --- **uzia**: afán, anhelo
- 10 Erretrogradoa **akara**: nardo --- **araka**: nudo de árbol
- 11 Erretrogradoa **akaro**: ácaro --- **oraka**: agarrando
- 12 Erretrogradoa **akort**: conforme, de acuerdo --- **troka**: sima, torca
- 13 Erretrogradoa **al**: (partícula interrogativa) --- **la**: la
- 14 Erretrogradoa **aloz**: dobladillo de la ropa, frunce, papada --- **zola**: base, suela
- 3 Palindromea **amama**: abuela
- 15 Erretrogradoa **amarra**: amarra, cura, vendaje --- **arama**: fragor
- 16 Erretrogradoa **amil**: precipicio --- **lima**: lima
- 4 Palindromea **anana**: anana, piña
- 5 Palindromea **anilina**: anilina
- 6 Palindromea **apa**: beso
- 17 Erretrogradoa **apal**: abatido, humilde, repisa --- **lapa**: lapa
- 7 Palindromea **apapa**: a arrechicos, ir de paseo
- 18 Erretrogradoa **apart**: apartadamente, aparte, excelente --- **trapa**: jadeo, trapa
- 19 Erretrogradoa **apez**: abate, clérigo, cura --- **zepa**: escoria de hierro, hongo
- 8 Palindromea **ara**: celo, celo de los animales
- 20 Erretrogradoa **arazi**: hacer realizar algo, inducido --- **izara**: sábana
- 21 Erretrogradoa **aro**: aro, edad, era, época --- **ora**: perro
- 9 Palindromea **arra**: palmo
- 22 Erretrogradoa **arran**: cencerro --- **narra**: escarificador, narria, rastra
- 23 Erretrogradoa **arras**: a ras, enteramente, muy --- **sarra**: escoria de hierro
- 24 Erretrogradoa **arru**: barranco, --- **urra**: hurra
- 25 Erretrogradoa **atal**: apartado, fragmento, gajo, miembro del cuerpo, parte --- **lata**: cancilla, lata
- 26 Erretrogradoa **atoi**: remolque --- **iota**: jota
- 10 Palindromea **aza**: berza, col
- 11 Palindromea **aña**: tata
- 12 Palindromea **edade**: edad
- 13 Palindromea **ehe**: agua de lejía
- 27 Erretrogradoa **eho**: barajado, barajar, moler, molido, tejer, tejido --- **ohe**: cama, lecho
- 28 Erretrogradoa **eki**: sol --- **ike**: cuesta abajo, declive
- 14 Palindromea **elemele**: chisme, habladuría
- 15 Palindromea **eme**: blando, hembra, suave
- 29 Erretrogradoa **eran**: matado, matar --- **nare**: serenamente, sereno, tranquilo
- 30 Erretrogradoa **eraz**: oportunamente --- **zare**: cesto, espuerta grande, sera
- 31 Erretrogradoa **ero**: demente, loco, matado --- **ore**: masa, masilla, pasta
- 16 Palindromea **erre**: abrasado, abrasar, asado, asar, fumado, fumar, incendiado, incendiar, resentido, resentir
- 32 Erretrogradoa **erro**: bisagra, gozne, pezón, raíz, tentáculo, teta de animal --- **orre**: enebro
- 33 Erretrogradoa **erru**: culpa, falta --- **urre**: oro
- 34 Erretrogradoa **ez**: carencia, excepto, negación --- **ze**: porque, qué
- 17 Palindromea **ezize**: apodo
- 18 Palindromea **eztitze**: temperación
- 19 Palindromea **gag**: gag
- 20 Palindromea **ibi**: vado
- 35 Erretrogradoa **ihaz**: el año pasado --- **zahi**: caspa, césped, salvado
- 36 Erretrogradoa **ihes**: fuga, huida --- **sehi**: criado, mozo, sirviente
- 21 Palindromea **ihi**: junco
- 37 Erretrogradoa **ikol**: huero --- **loki**: sien
- 22 Palindromea **ioi**: ion, ión
- 38 Erretrogradoa **irazi**: gastar, urdir --- **izari**: dimensión, medida
- 23 Palindromea **iri**: harina
- 39 Erretrogradoa **isasti**: escobado, escobar --- **itsasi**: adherido, adherir
- 40 Erretrogradoa **ito**: ahogado, ahogar, asfixiar, asfixiarse, atascado, atascar, estrangulado, estrangular --- **oti**: langosta
- 41 Erretrogradoa **izan**: consistido, consistir, estar, existir, haber, ser, tener --- **nazi**: nazi
- 24 Palindromea **kajak**: kayak
- 25 Palindromea **kok**: coque
- 42 Erretrogradoa **leber**: activo, diligente, hábil, solícito --- **rebel**: rebelde
- 43 Erretrogradoa **legen**: lepra --- **negel**: herpe, sarpullido
- 44 Erretrogradoa **lekat**: excepto --- **takel**: gordo, grueso, talega
- 26 Palindromea **nakan**: peca
- 27 Palindromea **nan**: dni
- 28 Palindromea **narran**: arrastrando
- 45 Erretrogradoa **narraz**: a rastras, arrastradamente, arrastrando --- **zarran**: arrastrando
- 46 Erretrogradoa **nekez**: difícil, difícilmente, fatigosamente --- **zeken**: avaro, cicatero, insensible, mezquino
- 47 Erretrogradoa **net**: enteramente, muy --- **ten**: equilibrio
- 29 Palindromea **obo**: argolla, redondo
- 48 Erretrogradoa **ohiz**: ordinariamente --- **ziho**: sebo
- 30 Palindromea **oidio**: oidium
- 49 Erretrogradoa **oilo**: cobarde, gallina --- **olio**: aceite, óleo
- 31 Palindromea **olo**: avena
- 50 Erretrogradoa **ordez**: en lugar de, en vez de --- **zedro**: cedro
- 32 Palindromea **radar**: radar
- 33 Palindromea **sos**: blanca, centavo, cuarto, moneda
- 34 Palindromea **tolot**: batueco
- 35 Palindromea **tut**: mu, nada, ni idea, ni palote, poco
- 36 Palindromea **ulumulu**: hablilla
- 37 Palindromea **ustetsu**: de muchas ideas, ingenioso
- 38 Palindromea **usu**: apretado, cerrado, espeso, frecuentemente, pus, rapidillo, suero de la sangre
- 39 Palindromea **uxu**: espantadizo, salvaje
- 40 Palindromea **ziz**: impuesto de consumo, sisa, tricolora

hobeto, logabeziaren aurka erremedio hutsezina da.

Ausartagoak izango bagina, palindromo-txapelketarako deia egingo genuke. Horrela, palindromoak sortzera bultzatuko litzateke, beste hizkuntza

batzuetan pasa den bezala. Mende honetako urte palindromiko bakarra den 1991.a data ona izango litzateke, adibidez, hasteko.

Bukatu baino lehen honako hau aitortu behar dugu: palindromo bila ez

dugula euskal izen eta toponomikoak ikertzeko denborarik izan. Eredu gisa hauek aipatuko ditugu: Ana, Iruri, Isasi, Oro,..., izen berezietan: Aia, Amapa eta Arama, Aiara eta Araia, Araka eta Akara,..., toponimikoetan. Honek

**BIGARREN TAULA:
HITZ PALINDROMIKOAK ETA
ERRETROGRADOAK
GAZTELANIAZ**

- 1 Erretrogradoa **amor**: amodio, amore, amorio, estima, maitakari, maitasun, oneritzi, onerizko, onerizte, xera --
roma: erroma
- 1 Palindromea **anana**: anana
- 2 Palindromea **anilina**: anilina
- 3 Palindromea **ara**: aldare
- 2 Erretrogradoa **aro**: aro -- **ora**: bai...bai, noiz, noiz ...noiz, zein
- 3 Erretrogradoa **arroz**: arroz --
zorra: azeleme, likitx, makera, puta, urdanga
- 4 Palindromea **asa**: atxekigailu, euskarri, girten, helduleku, girten, lopide, orakarri
- 4 Erretrogradoa **aval**: abal, berme -- **lava**: laba
- 5 Palindromea **aya**: sentzain
- 5 Erretrogradoa **azar**: adur, azare, mentura -- **raza**: abenda, arraza, askazi, enda
- 6 Erretrogradoa **dar**: eman --
rad: rad
- 6 Palindromea **gag**: gag
- 7 Palindromea **kayak**: kajak
- 7 Erretrogradoa **los**: -ak, -ek, -ok --
sol: eguzki, eki
- 8 Palindromea **non**: bakoiti
- 8 Erretrogradoa **orar**: otoitz egin, otoiztu -- **raro**: aldrebes, arraro, bakan, banaka, bitxi, eskas, estrainio, harrigarri, pitxi, sinoti, urri
- 9 Palindromea **oro**: urre
- 9 Erretrogradoa **osar**: ausartu --
raso: arraso, soil
- 10 Palindromea **radar**: radar
- 10 Erretrogradoa **raedor**: harraskailu, harraskatzaile, karraskailu, karraskatzaile --
rodear: hertsinguratu, inguratu, ingurukatu, kordonatu
- 11 Palindromea **rajar**: arrailatu, arraildu, arrakalatu, artesitu, erdiratu, pitzatu, printzatu, zartatu
- 12 Palindromea **rallar**: apurtu, birrindu, nekarazi
- 13 Palindromea **rapar**: arradatu, bizarra egin, bizarra kendu, moztu, murriztu
- 14 Palindromea **rayar**: marratu
- 15 Palindromea **recocer**: berregosi, egostu
- 16 Palindromea **reconocer**: aitortu, baitetsi, berrezagutu, berriz ezagutu, ezagutu, aintzatu hartu, onartu, onetsi
- 17 Palindromea **rotabator**: errotaitzur
- 18 Palindromea **rotor**: biragailu, biralgailu, errotore

**HIRUGARREN TAULA: HITZ PALINDROMIKOAK ETA
ERRETROGRADOAK INGELESEZ**

- 1 Erretrogradoa **amall**: mutiko, mutil, ttiki, txiki -- **llama**: gar, lama, llama, sugar
- 2 Erretrogradoa **animal**: abere, abereki, animalia -- **lamina**: txapa, xafla, lamina, xafla
- 3 Erretrogradoa **bin**: eltzeitsu, itsulapiko -- **nib**: gabirai, luma
- 1 Palindromea **bob**: astindu
- 4 Erretrogradoa **brag**: harrotu, planttatu, prezatu -- **garb**: janzki, abilamendu, jazki, soineko
- 5 Erretrogradoa **but**: ez beste, lekat, salbu, baina, ordea -- **tub**: upela, aska, tina, treska, uhaska
- 6 Erretrogradoa **cere**: ezkoztatu, ziratu -- **erec**: artez, eskuin, tente, zutiko, zuzen
- 2 Palindromea **civic**: herritar, hiritar, kaletar, hirikor
- 3 Palindromea **dad**: aita, aitatxo, aitta
- 7 Erretrogradoa **dam**: barradera, dike, uhertsi, padura, urtegi, zingira --
mad: burutik, ero, zoro
- 4 Palindromea **deed**: egin, egintza, egitada, agerpen, agiri, dokumentu
- 8 Erretrogradoa **deer**: orein, ehizatu -- **reed**: txilibitu, xaramel
- 9 Erretrogradoa **dew**: garoztatu, ihintzatu, basur, ihintz -- **wed**: ezkondu
- 10 Erretrogradoa **dog**: or, txakur -- **god**: jainko, jaungoiko
- 11 Erretrogradoa **doom**: arbuaiatu, damnatu, gaitzetsi, madarikatu -- **mood**: apeta, desirkunde, gurari, nahikeria
- 12 Erretrogradoa **drawer**: kaxoi, tiradore -- **reward**: mesede egin, on egin, onura atera, esker-sari, eskupeko, gainordain, sari
- 13 Erretrogradoa **edit**: argitaratu, editatu, idatzi -- **tide**: itsasaldi, marea
- 14 Erretrogradoa **eel**: aingira -- **lee**: haizabe, haize-geriza
- 5 Palindromea **ewe**: ardi
- 15 Erretrogradoa **flog**: azotatu, zehatu, zirtizartatu -- **golf**: golf
- 16 Erretrogradoa **flow**: alderatu, arineketan egin, korri egin, korrika egin, korritu, laster egin, lasterka egin, lerratu -- **wolf**: otso
- 6 Palindromea **gag**: bozatu, mordaza
- 17 Erretrogradoa **gas**: asfixiatu, ito, ito erazi, gas -- **sag**: abdikatu, amore egin, amore eman, onetsi, utzi
- 18 Erretrogradoa **gum**: oi, gomatu, gomaztatu, kolatu, goma, likale -- **mug**: godalet
- 19 Erretrogradoa **gut**: barneko, este, heste -- **tug**: teinkada, tirabira, tirakada
- 20 Erretrogradoa **keel**: gila -- **leek**: porru
- 21 Erretrogradoa **lap**: aldapa, gona, magal, altzo, golko, magal -- **pal**: adixkide, amigo, kide, konpai
- 22 Erretrogradoa **leer**: ozartasunez begiratu -- **reel**: kordokatu, zabunkatu, barauts, broka
- 23 Erretrogradoa **leper**: legenardun, legendun -- **repel**: alderazi, arbuaiatu, atzera bota, eragotzi
- 24 Erretrogradoa **lever**: eskape, eskapu, ihesgailu, iheste -- **revel**: istilu, zalapart, zarata
- 25 Erretrogradoa **liar**: gezurti, sabelpexuri, zaplandari -- **rail**: eskudel, errei, karril, errail
- 26 Erretrogradoa **loop**: bigitza, lakio, txori -- **pool**: uhaska, almadia, idoi, urmahel, urosin, urtegi
- 27 Erretrogradoa **loot**: harapakin, harrapakin, katiuska -- **tool**: erreminta, lanabes, tresna, gailu
- 7 Palindromea **madam**: andere, andre
- 28 Erretrogradoa **may**: maiatz -- **yam**: ñame
- 29 Erretrogradoa **meet**: bildu, konkurritu, lehiatu, aurkitu -- **teem**: irakin, populkatu, ugaldtu, ugaritu
- 30 Erretrogradoa **moor**: amarratu, atrekatu, lehorreratu -- **room**: ganbara, gela, gelaska
- 31 Erretrogradoa **nap**: borra, hondar -- **pan**: ogi
- 32 Erretrogradoa **nip**: atximu

emaitza onak lor daitezkeela pentsarazten du.

Oraingo ez daukagu beharrezkoa izango genukeen koalifikazio lexikografiko eta linguistikorik. Horregatik euskaraz palindromo ugari egoteari buruz ezin dugu azalpen zehatzik eman. Agian euskal hitz askoren trinkotasunari lotuta hizki batzuk asko erabiltzen direlako izango da. Artikulu honek ez du, bada, ondorioz. Gure asmoa

euskararen anekdota honi buruzko zenbait gogoeta azaltzea zen.

Testu honen goiburuan agertzen den azpittuluak ekarpen apala egin nahi die euskal palindromoei. Gogokoa izango genuke beste ekarpen baliagarriagoz euskararen arlo baztertu hau aberastea. Lan hutsala eta ergela iruditu arren, atsegina ere gerta daiteke.

Zorionak eta 1991. urte palindromiko on!